

## **Sara Berasaluceren erakusketak emango dio amaiera Montehermosoko 2015eko proiektu artistikoen zikloari**

**Iñaki Prusilla zinegotziak hobekuntzak iragarri ditu artista lokalei laguntzeko programa horretarako**

Sara Berasaluce artista gasteiztarrak emango dio amaiera 2015eko proiektu artistikoen zikloari, zenbait argazki bikotek osatutako erakusketa-instalazio batez. “Forget-Forgot-Forgotten” erakusketak oroimenaren ahultasuna du gaia, denbora pasatu ondoren bizi izandakoaz geratzen dena, nola orain gogoratzen garen orduko hartan sentitu izan genuenaz. Azaroaren 5etik abenduaren 13ra arte egongo da ikusgai, Montehermosoko klaustroan.

Proiektua, batetik, *Blow up* (Michelangelo Antonioni, 1968) filmeko irudietan oinarritzen da eta, bestetik, filmaren irudietako batzuk hartu ziren Londresko parke berean artistak egindako argazkietan. Lan horren bitartez, gure pertzepzioen izaera laburra azaltzen du Sara Berasalucek, nola baita inoiz ahaztuko ez omen dugun hori ere urtu egiten den, ia ezertxo ere antzematen ez den lanbro bihurtu arte.

Proiektuak amaiera emango dio 2015eko deialdian hautatutako lanen aurkezpenari. Proiektu artistikoak diruz laguntzeko hirugarren deialdia izan da, zeinak proiektuen produkzioa eta garapena bultzatuz hiriko artisten lana ezagutarazteko xedea baitu.

Aurtengo deialdiak 22 eskabide jaso zituen, eta zazpi proiektu hautatu ziren; horien artean banatu dira aurtengo edizioari esleitutako 12.000 euroak, lortutako puntuazioaren arabera. Proiektua garatzeko eta gastu orokorreari aurre egiteko zenbateko horrez gain, Montehermoso kulturuneak lanak jendaurrean erakusteko espazioak eta baliabide teknikoak jarri ditu.

### **Berrikuntzak 2016rako**

2016an, Montehermoso kulturuneak inguruko artistei laguntzen jarraituko du, hastapenetan diren praktika artistikoak ikusgai bihurtuz. Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Iñaki Prusillak iragarri duenez, udal gobernua zenbait aldaketa lantzen ari da, esate baterako, hautatutako artistek proiektua gauzatzeko duten epea luzatzea. Izan ere, proiektua lantzeko epea luzeagoa bada emaitza hobekak lortuko dituzte.

Gainera, artistaren lanaren aitorpena sustatuko da, profesionalizazioaren lehen urratsetan lagunduz: proiektuak aurkezteko bitartekoak eskaintzeaz gain, eskabidean ordainsarien kontzeptua sartzeko aukera emango da.

Azkenik, Prusillak azaldu duenaren arabera, kalitatea lehenetsiko dute kantitatearen aldean: proiektu gutxiago hautatzea pentsatu da (3-4 gehienez), bakoitzari diru zuzkidura handiagoa eta baliabide tekniko gehiago emateko eta jendaurrean luzaroago erakutsi ahal izateko.

## **Sara Berasaluce Duque. Vitoria-Gasteiz (1992)**

[www.saraberasaluce.com](http://www.saraberasaluce.com)

Artean graduatua Euskal Herriko Unibertsitatetik (2014), Arte eta Teknologiako Minorreko ikasgaiak egin zituen Leioako Arte Ederretako Fakultatean, eta argazkigintza artistikoan espezializatu. Hainbat sari jaso ditu, esaterako, Gazte Klik argazki digitalen lehiaketan (2011), eta “Camino de Hierro” nazioarteko argazki lehiaketaren 27. edizioan (2013) hautatu zuten. Erakusketak: Ikus-entzunezko sorkuntzen XXV. erakusketa, Bilboko BBVA fundazioan; 2014ko Viphoto argazki azoka, eta TetraPack, Gasteizko Ignacio Aldecoa kultura etxean.

## **Montehermoso cierra el ciclo “Proyectos Artísticos 2015” con una exposición de Sara Berasaluce**

**El concejal de Cultura, Iñaki Prusilla, anuncia mejoras de este programa de apoyo a artistas locales**

La artista gasteiztarra Sara Berasaluce pondrá el broche al ciclo “Proyectos Artísticos 2015” con una exposición-instalación, formada por varias parejas de fotografías. La muestra “Forget-Forgot-Forgotten” trata de la fragilidad de la memoria, de lo que queda de lo vivido cuando pasa el tiempo, de cómo nos acordamos ahora de lo que sentimos entonces. El claustro de Montehermoso acogerá esta exposición del 5 de noviembre hasta el 13 de diciembre.

El proyecto está basado en imágenes de la película Blow up (Michelangelo Antonioni, 1968), y en las fotografías tomadas por la artista en el parque de Londres donde se rodaron algunas escenas de esta película. A través de este trabajo, Sara Berasaluce describe la condición efímera de las percepciones, cómo hasta lo que parece que no se olvidará nunca se diluye hasta convertirse en una niebla de la que apenas se distingue nada.

Con este proyecto, se cierra la presentación de los trabajos seleccionados en la convocatoria del 2015. Esta ha sido la tercera edición de la convocatoria de Proyectos Artísticos, cuyo objetivo es hacer visible el trabajo de las y los artistas locales mediante el apoyo en la producción y difusión de sus proyectos.

La convocatoria de este año recibió 22 solicitudes, siendo seleccionados siete proyectos, entre los cuales se ha distribuido, en función de la puntuación alcanzada, los 12.000 euros asignados a esta edición. Además de esta cuantía económica para la producción y gastos generales del proyecto, el Centro Cultural Montehermoso ha aportado los espacios y recursos técnicos necesarios para su presentación pública.

### **Novedades para 2016**

Para el año 2016, el Centro Cultural Montehermoso mantiene su apoyo a artistas del contexto local, haciendo visibles las prácticas artísticas emergentes. Según ha anunciado el concejal de Cultura, Educación y Deporte, Iñaki Prusilla, el Gobierno municipal está trabajando en algunos cambios como ampliar el plazo que los artistas seleccionados tienen para realizar su proyecto. Esto les permitirá trabajar con plazos más amplios el proyecto y obtener, por tanto, mejores resultados.

Además, se va a impulsar el reconocimiento del trabajo del artista, apoyando a los primeros pasos en su profesionalización: además de posibilitar medios para presentar sus proyectos, se podrá introducir en la solicitud el concepto de honorarios.

La tercera novedad avanzada por Prusilla es apostar por la calidad frente a la cantidad: se plantea seleccionar un menor número de proyectos (3-4 máximo) pero destinarles una mayor dotación económica, más recursos técnicos y un periodo más largo de presentación al público a cada uno.

### **Sara Berasaluce Duque. Vitoria-Gasteiz (1992)**

[www.saraberasaluce.com](http://www.saraberasaluce.com)

Graduada en Arte por la Universidad del País Vasco en 2014, cursó asignaturas del minor de Arte y Tecnología de la facultad de Bellas Artes de Leioa, especializándose en fotografía artística. Ha obtenido diversos premios como el del Certamen de Fotografía Digital para Jóvenes Gazte Klik en 2011 y fue seleccionada en el 27º concurso fotográfico internacional “Caminos de Hierro” en 2013. Ha participado en exposiciones como la XXV Exposición Visual y Sonora en la Fundación BBVA de Bilbao, la Feria fotográfica Vipphoto 2014 y TetraPack en la Casa de la Cultura Ignacio Aldecoa de Vitoria-Gasteiz.